

Amasa-Villabona... Bai iragan ona!

LUMIANE

Santioak

8 zbk.

2005eko uztailaren 3a



Pio aguazila eta Joxe Mari 'Okerra'
1949 urteko Santio egunean,
exceferoak botatzen

Gaur egungo Santioekin alderatura, oso ezberdinak ziren orduko jaiak, "horixe". Arratsaldeko lauetan ekiten zioten kalejirari, "orain gaueko hamabietan hasten da festa, orduan bazkaldu ondoren hasi eta hamabietan edo ordu batean amaitzen zen". Udaletxeak antolatzen zituen jaiak, "festen antolaketarako ez zen gaur bezala batzorderik izaten. Alkatea eta zinegotziak aritzen ziren jaiak antolatzen". Festetako egitarauak txikitatik ezagutzen dituzte, "gu txikiak ginean ere banatzen zituzten programak baina, orri bakarrek ziren haiek. Gerra ondoren hasi ziren liburuxka itxurako egitarauak ateratzen". Orain bezala, uztailearen 24tik 31ra izaten ziren jaiak, "Villabona festazalea izan da. Santiotan hasi eta San Inazioak arte, beti". Ohitura horri aspaldiko urteetatik eusten zaio, "sartu diren alkate guztiek usadio hori mantendu dute, nahiz eta jaietan zehar, hainbat egunetan ez den ezer



askorik izaten". Joxek egun gutxiagorekin ere nahikoa litzatekeela dio, "24tik 26ra eta 30etik 31ra iraun beharko lukete jaiak. Villabonakoak bezain festa luzeak herri handiagoetan ere ez dira izaten". Festen iraupen luzeak ondorioak ekartzen dituela ere usate du, "sesioak sortzen dira etxeetan. Gazteak dirua behar baitu patrikarako".



¿Cómo pasar las próximas Fiestas alegre y convenientemente?.....

Este caballero apuesto y elegante, ante tan difícil interrogante, lo ha resuelto en un instante.

Primero oír misa devotamente, cual corresponde a un católico observante; y luego a ARANTZABI el famoso restaurante, enclavado en AMASA estratégicamente, el caserío-hostal más típico y atrayente, del País Vasco y hasta del europeo continente, donde se come y cena opíparamente, servido por la simpática Agustina amorosamente, pasando de esta forma un día excelente, que colmará al gastrónomo más exigente. (¡Esto es pensar cuerdamente!.....)

Bar Restaurante ARANTZABI
Teléfono 39 - AMASA (Villabona)

Egitarauetan iragarki mordoak argitaratzen zen. Ondo zaintzen zuten mezua, gainera!

SANTIO, VILLABONAKO PATROIA

Villabonako jaietan santu ezberdinen egunak tartekatzen diren arren, hizlariak patroia bakarria dela azaldu dute, "Villabonako patroia Santio izan da betidanik. Oraingo gazteek ez dute egun hori nahi, Espainiako patroia ere badelako. Guk hemen, herriko patroia moduan, Santio ezagutu dugu beti. Santa Ana eguna ere, oso egun ederren baina, ez zen hain egun handia. San Inazio, berriz, Gipuzkoako patroia zelako ospatzen zen. Jaien segiera zen". Jende mordoak biltzen zen Santiotan, "kanpoko jende asko etortzen zen Villabonara. Kalea eta kamioä, den-dena bete-beteta izaten zen. Hemen inguruan ez zen festa gehiagorik egokitzen eta Villabona erdigunean gera-

tzen zenez eta trenez edo tranbiaz, ondo komunikatuta zegoenez, jende asko etortzen zen inguruko herrietatik eta baita, Tolosa edo Donostia aldetik ere. Orain baino askoz ere jende gehiago biltzen zen". Santio eguna handia zen; pentsa, gehienek, arropa berriak jantzen zituzten egun horretan, "Santio egunean, generalean, arropa berria estreinatzen genuen. Neskek perkalezko edo setazko soinekoren bat eta mutilek, mendigoizale galtzak (*mil rayas*-ak) eta alkanadora txuria. Jantzi politikak ziren guretzat" diote. "Edadea zen polita. Gu ere ederragoak ginen, zimurrik gabeak, hogeitau urte azpitik genituenean". Hala ere, herritarrentzat, Santa Ana eguna ere garrantzitsua

zen eta, nola ez, San Inazio eguna eta bezpera ere oso bereziak ziren. Tarteko egunak ahulagoak ziren. Asteburuarekin egokitzen ez bazen, atsedenerako hartzen ziren pare bat egun.



Maria Luisa Zalakain

"Santio egunean, generalean, arropa berria estreinatzen genuen. Neskek perkalezko edo setazko soinekoren bat eta mutilek, mendigoizale galtzak"

KANPAI ERREPIKA ETA ETXEFEROA, JAIEN IRAGARLE

Uztailearen 24an, iluntzean, kanpai errepi-karekin eta etxeferoarekin ematen zitzairen festei hasiera. "Txupinazorako ez zen jenderik biltzen plazan. Pio aguazilak eta Joxe Mari 'Okerra' laguntzaileak etxeferoa bota

eta kito!". Ondoren erraldoien eta buruhandien kalejira izaten zen; orduan bai ume festa! "Aspaldiko ohitura da erraldoiekin eta buruhandiek korrika ateratzea. Kalejira alaituz, gaiteroak ateratzen ziren orduan. Pla-

zatik abiatu eta Kale Nagusitik barrena, Kaleberria zeharkatzen genuen. Izkina taberna inguratuz, plazara berriro. Garai hartako Villabona, Izkina tabernatik elizararen pareraino luzatzen zenez, herri osoa zeharkatzen

genuen". Ume askok hartzen zuen parte erraldioen eta buruhandien kalejiran, "orduan ere, ume bat baino gehiago beldurtzen zen buruhandiek. Ezkaratzak zabalik egoten zirenez, barrura sartu eta eskaileretan gora abiatzen ginen, buruhandia atzetik zetorrela. Lau buruhandi ateratzen ziren kalejiran, maskuria eskuan hartuta. Erraldoiak biziren; urte askoan izan ziren berdinak. Arabiar itxu-

rakoren bat bazen tartean". Maria Luisak gogoan du buruhandiak zer ziren ez zekien garaia, "Olatxotik Villabonara etorri nintzenez, bederatzi bat urte izango nituen. Neska-kozkorretan nik ez nekien zer ziren erraldoiak eta buruhandiak. Gogoratzen naizikusit nituen lehenengo aldiaz". Buruhandien ondoren, herriko musika bandak kalejira alai egiten zuen, "txalo artean erantzuten zuten herritarrek haien etxeetara gerturatzeko zirenean". Gauean dantzaldia izaten zen, "herriko musika bandak eskaintzen zuen emanaldia, gaueko 22:00etatik 01:00era. Musika amaitu bezain laster hustu egiten zen plaza eta ordu horretan ixten ziren tabernak ere. Aguazilak eta guardia zibila arduratzen ziren ordutegia ondo betetzeaz, kalean errondan ibiltzen baitziren".



Herritar mordoia plazako emanaldia ikusten.



Herritarrek plazan hastera zihoan ekitaldiaren zain.

'LOS DEL ÚLTIMO VAGÓN' TXARANGA KALEAK ALAITZEKO PREST

1942 urtean, Villabonako mutil gazte talde batek txaranga osatu zuen. "1942 urtean sortu zen 'Los del último vagón' txaranga. Villabonako mutil koadrila batek, San Ferminak ezagutu zituenean, Iruñeatik ekarri zuen Santio festetan ere kaleak musikaz alaitzeko ideia. Udalaren laguntzarekin, musika bandako hainbat kide eta musika tresnak jotzen zituzten beste hainbat herritar, txaranga osatzeko lanetan hasi ziren. 1943ko Santiotarako prest zegoen txaranga. Kantuen errepertorio luzeaz gain, musikarientzako jantzi egokiak ere atondu zituzten: galtza eta alkandora txuriak. Kaleak ez ezik, soka-muturra ere alaitzen zuten euren doinuekin. Egitarauan zezenak tar-

tekatzeko ideia ere taldekideena izan zen. Hiru urte iraun zuen lehen taldeak, geroa partaide berriei ireki zieten bidea: 'olatu berriari'. Herritarren aldetik, oso harreara beroa izan zuten". Txarangek bazuten ohitura berezi bat, "etxeetako balkoien azpian jarri eta 'Qué guapa estás Lupe' edo 'Qué guapa estás María' abesten zioten etxe-koandreak". Gerra garaian, herrietako festak bertan behera geratu ziren. Gerra ondorenean birsortu ziren berriro jaiak eta Villabonan, besteak beste, 'Los del último vagón' txarangek alaitzen zituen herriko kaleak, "Gerra Zibileko urte triste eta gogor haiek ahazteko, bazen zerbaiten beharra" azaldu du Jabierrek. Txaranga hartako par-

taideen artean, ondorengo hauexek osatzen zuten taldea, besteak beste: Robustiano Garzia, Jesus Zapiain, Ignazio Garmendia, Nikolas Adrian, Alberto Perez, Juan Ezkio-ga, Godo Barbe, Juan Ormazabal, Jose Castro, Isidro Iguaran, Antonio Garzia eta Ramon Larrañaga villabonatarrek.



'Los del último vagón' txarangako partaideak.

SANTIO EGUNA, EGUN HANDIA

Jaietako egun handia, uztailaren 25a izaten zen. Goizeko zazpiretan hasten zen musika bandaren diana kaleak alaitzen, "herritarrek jaien hasierarekin esna zitezen". Segidan txistularien diana izaten zen, "biribilketa alai egiten zuten kalejira. Goizean goizetik hasten ziren udaletxeko terrazatik etxeferoak botatzen, bezperan juerga egin zutenak esanatzeko". Goizean helduentzako zezenak eta umcentzako erral-

doiak eta buruhandiak ere izaten ziren. "Hamarrak aldera, alkatea buru zela, Udal korporazioa udaletxetik atera eta txistulari bandarekin batera, elizara abiatzen zen. Bidean, 'Alkate-soñua' kantua lagun zutela". Meza nagusia jendetsua eta berezia izaten zen. "Parrokiako abesbatzak Perosiren meza abesten zuen hiru ahotsetara, Oharretxena jauna organuan zela eta Cuevas jaunak zuzenduta". Urte batzuetan, herri-



Jabier Berasaluze

"Parrokiako abesbatzak Perosiren meza abesten zuen hiru ahotsetara, Oharretxena jauna organuan zela eta Cuevas jaunak zuzenduta"



Martin Laskurain, Juanito Gurruztuga eta Ixio Iribarren txistulariak, Pio aguazila ondoan dutela. Atzean Udaleko kideak eta herritarrak.

ko dantzariak ere parte hartu zuten Santio eguneko kalejiran, udaletxearen nahiz elizaren atarian dantza eginez. Meza nagusian apaiz ugarik hartzen zuen parte, "garai hartan, lau apaiz zeuden Villabonan: on Leandro, on Juan Imaz, on Salvador eta on Mateo. Santiotarako, ordea, kanpoan zeuden herriko semeak ere etortzen ziren mezetan laguntzera. Kanpoan apaiz aritu ziren lau villabonatar ezagutu genituen guk: Jose Urrestarazu Berastegiko apaiza zen, Felix Lertxundi Araba aldean, Ordizian eta Venezuelan ibili zen, Migel Arrillaga Tolosan lehenik eta Ekuadorren gero eta Jose Maria Mujika, Donostiako San Inazio parrokiaren. Santio eguneko sermoia emateko, laguntzaile gehiago ere etortzen zen". Meza eta gero, Villabonan tradizio luzea duen dantza-soka izaten zen plazan, "herriko neskak dantzara ateratzen zituzten mutilek". Eta segidan, herriko musika bandaren txanda izaten zen, "lauzpabost pieza eskaintzen zitzaizkien emanaldia entzutera gerturatutako entzulei". Musika emanaldia Errebote Plazan izaten zen, "kiosko txiki bat jartzen zuten eta gu behean egoten ginen, zutik, begira. Giro polita sortzen zen ordu horretan plazan nahiz kalean. Gizonak tabernetan elkartzen ziren batik bat eta Villabonatik kanpora bizitzera joandakoek, ez zuten egun horretan herrira itzultzeko aukerarik galtzen". Musika bandarekin tartekatuz, txistularien bandak ere kontzertua eskaini izan zuen urte askoan zehar, "nik 25 urtez antolatu nuen txistularien alar-

dea. Gipuzkoako herri ezberdinetatik etortzen ziren txistulariak. Emanaldia baino ordubete lehenago entseiatzen genuen. Lan handia eskatzen zuen, guztientzako partiturak atera behar izaten baintuen. Kontzertua eta gero hamaiketako egiten genuen. Herrian zehar kalejiran ibiltzen ginen segidan eta, bazkaria izaten zen ondoren. Iru aldetan urteren batean, Arantzabin gehienetan" azaldu du Martin Laskurainek. Emakumeak sukaldean aritzen ziren, goizeko mezetara joan eta kontzertua ikuste-



Isabel Beraza

"Sekulako taldea elkartzen ginen bazkaltzeko, oso giro polita sortzen zen"

ko ia denborarik gabe, bazkaria prestatzen. Santio eguneko menua jakina bezain gustukoa zen etxe gehienetan, "bazkari berezia izaten zen. Urteko egun guztietan, astean zehar, babarrun gorria jaten genuen, igandetan babarrun zuria edo garbantzua eta Santio egunean, oiloarekin egindako salda, oiloa barazkiekin gisatuta eta oilasko errea. Postretarako arroz esnea edo 'letxe frita'. Senitartekoak bazkaritara gonbidatzeko ohitura zuten orduko villabonatarrek. "Santio egunean familia osoa biltzen ginen etxean, ingurukoak izan edo kanpo-



Martin Laskurain

"Nik 25 urtez antolatu nuen txistularien alardea. Gipuzkoako herri ezberdinetatik etortzen ziren txistulariak"



1944 urteko Santio eguneko dantza-soka.

koak". Oraindik ere, batek baino gehiagok eusten dio ohitura horri. Isabelek, egun horretan, bazkaritako jende asko biltzen zela azaldu du, "amaren eta aitaren partetik etortzen ziren familiako kideak gure etxera. Donostia aldetik ere etortzen ziren. Sekulako taldea elkartzen ginen bazkaltzeko, oso giro polita sortzen zen". Bazkal-ondorenak luzeak izaten ziren, hizketan aritzen ziren batz eta besteaz, arratsalde guztian zehar. Askotan afariarekin ematen zioten amaiera egunari. Gurasoak eta familiako kideak etxean geratu arren, gazteak kalera ateratzen ziren. Egun horretan Tolosako musika banda etortzen zen herrira, kultur zinegotziak harrera egin eta gero, kalejira egiten zuten plazako emanaldiarekin hasi aurretik. "Kultur zinegotziarekin batera, Pio aguazila eta Jose Mari 'Okerra' ere bertan izaten ziren, etxeroak botatzeko. Pio etxeroak eusten zituen bitartean, 'Okerra'k, erretzen ari zen puruaren ematen zien su". Gazteak, berriz, dantzaldirako prest izaten ziren plazan, "dantza hasterako, korrika ateratzen ginen plazara. Edade horretan, ez genuen pieza bat bera ere galtzen. 16:30etatik 21:00ak arte jotzen zuten bandak eta dantzaldia amaitutakoan, Inauterietako kantekin kalejira eskaintzen zuen kaleetan barrena. Neska eta mutil besotik eutsita ibiltzeko aukera izaten genuen orduan. Garai hartan pekatua zen hori!". Gero, 22:00etatik 01:00a arte, orkestinaren lana zen musika jartzea, 'Beotibar' edo 'Los alegres' taldeak arduratu ziren lan horretaz hainbat urtean.

MUSIKA BUKATUTAKOAN, AKABO FESTA

Musika amaitutakoan bukatzen zen festa, guztiak etxera orduan. "Gaueko dantzaldira etortzen ziren kanpotarrek, oinez itzuli behar izaten zuten etxera; ordu horretan ez baitzegoen inolako zerbitzurik". Villabonan neska-laguntzarik apenas izaten zen; itxuraz, baserri giroko herrietan ohikoagoa

zen ohitura hori eta agian, geroxeago gainera. Joxek "neska-laguntzea?" galdetu du. "Neskekin dantzarik ia ezin genuen egin eta, neska-laguntzea?". Tabernak musika amaitu eta berehala ixten zituzten. Eta taberna barruan zer nolako giroa izaten ote zen? "Herria txikia zen orduan. Izkiña eta pla-

za aldeko tabernak egoten ziren irekita; Tturko, Exekiel, Periodista, Bodegon...". Gizonak bakarrik sartzen ziren tabernetara, "lanean hasitako mutilak; 14 urtetik aurrerakoak, diru pixka bat zutenak". Poteoan ibiltzeko ohitura egun baino hedatuagoa zegoen orduan, "jende asko biltzen zen taber-

nan eta izugarriko zikinkeria sortzen zen, lurra busti-busti eginda. Ardoa edaten zen poteoan, ez baitzen garagardotarako iristen. Txikitoak 10 zentimo balio zuen". Taberna barruko giroa ere egungoaren oso

ezberdinaz, "ez zen musikarik izaten. Zelebrekeriak bai, asko gertatzen ziren". Egun baina pertsona zelebre gehiago zegoela azaldu dute hizlariak. "Festetan, tabernen kanpoko mahaien gainean, saltoka ibiltzen

zen Praxku Mari. Guk barre ugari egiten genuen hari begira". Plazako musika amaitzen zenean, festa bukatzen bazen ere, beti izaten zen festa luzatzen zuen parrandazalaren bat.

SANTA ANA, EZKONDUEN EGUNA

Garai hartako Villabonan, Santa Ana egunak bazuen berezitasun bat, "ezkonduen eguna izaten zen, egun ederra. Urte dezentetan iraun zuen ohitura hark. Senar-emazteek taldean ospatzen zuten eguna. Nahi zuenak, zerrendan izena eman eta ekintzetan hartzen zuen parte. Besteak beste, saltoka eta dantzan aritzen ziren txarangarekin eta eguerdian, Berdura plazan bazkaltzen zuten. Hizlariak, partaide mordoa biltzen zela eta askok, dantzan oso ondo egiten zuela gogoratu dute. "Iluntzetan ezkonduak plazan eskaintzen zuten dantzaldia ikustea oso polita zen: korroan, suetoan". Ezkondua edo ezkongabea izan, villabonatarren eguna zen Santa Ana, "Santio egunean kanpotar ugari etortzen zen bezala, Santa



Txirrindulari ezagunak herrira etortzen hasi aurretik, besteak beste, Joxe Garmendia izan zen txirrindularitzarekiko afizioa piztu zuen kirolarietako bat. Bere garaian oso txirrindulari ona izatera iritsi zen.

Ana eguna herritarrena zen". Egun hori bereziki prestatzen zuen villabonatarrik ere bazen, "koadrila batzuek karrozak egiten zituzten egun horretarako. Izugarriko juergak egiten zituzten, sano-sanoak. Guk hamazazpiren bat urte genituela hasiko ziren karrozak ateratzen baina, gerora ere eutsi egin zioten ohitura horri". Txirrindularien lasterketa ezaguna ere egun berean izaten zen. Txirrindulari eta ikusle ugari biltzen zen herrian. Hasieran, inguruko txirrindulariek parte hartzen bazuten ere, gerora, txirrindulari ezagunak etorri ziren, Ramuntxo Irazusta, Udalak dirurik ez zuenean, haiek ekartzeko dirua jartzen hasi zenean. Eskuzko pilota partidak ere izaten ziren egun horretan, ia egunero bezalaxe.

NESKAK ZINTAK EGITEN, MUTILAK LASTEKETAN

Lumanetarren gazte garaian, zinta-lasterketa antolatzen hasi ziren, "neskek, koloretako zinta zabalak prestatzen genituen egun horretarako. Ahalik eta ondoen egiten saiatzen ginen, bai horixe! Batzuek koloretako hariekin brodatzen zituzten, besteak brodatu gabe baino, margoekin irudiak eginez, txukun-txukun egiten ahalegintzen ginen guztiak. Politena zeinek egiten zuen izaten zen joko". Lasterketari ekin aurretik, neskek prestatutako zintak makila batetik zintzilikatzen zituzten plazan. "Mutilak, bana-

ka-banaka, bizikletaren gainean gindoa-zela, lapitza edo ziri baten laguntzaz, zinta haietakoren bat harrapatu behar genuen". Denak ilaran jarrita, hogeitabat metroko distantziatik abiatzen ziren bata bestearen atzetik, zintaren bila. "Neskak, bitartean, 'nirea harrapatu du horrek' edo 'zurea' esanez egoten ginen, gustura". Mutil bakoitzak nahi adina zinta har zitzakeen, "zinta guztiak hartu behar ziren, bukatu arte. Ez zen hain erraza; oreka behar zen esku bakarrarekin zinta harrapatzeko. Azkar bukatzen ziren, hala ere, ez pentsa!". Mutil batzuek jakiten omen zuten noren zinta hartu zuten, "batzuek izena ere jartzen zioten. Beti ez baina, era batera edo bestera jakiten genuen zeinen zinta hartu genuen". Ligatzeko edo jolaserako ere, ez zen batere frogatxarra. Herriko gazte gehienek hartzen zuten parte lasterketan; zintak eginez neskek, bizikletaren gainean mutilek. Villabonan bezala inguruko herri gehienetan egiten zuten joko hori herriko jaietan. Ohitura zabaldua zen.



Anjel Egiñok gordeta ditu gaztetan eskuratutako hiru zinta. 1945 eta 1948 urtekoak dira. Egileak: Miren Gotzone Beraza, Belen Barbe eta Laskurain ahizpak.



Anjel Egiño

"Bizikletaren gainean gindoazela, lapitza edo ziri baten laguntzaz, zinta haietakoren bat harrapatu behar genuen"

ZEZEN-SUZKOA ETA SOKAMUTURRA

Hizlariak ume ziren garaian, oro har, zezen-suzkoa, Santio egunean ateratzen zuten. “Suzko zipriztinekin alkandora berria erre zitzaidan urte batean. Etxera joateko beldurrez gero” aipatu du Joxek. Sokamuturra kale nagusian zehar egiten zen, “zezena sokarekin loruta ateratzen zuten lehenengo”. Joxe Mari Subijana alkate zela ekarri zituzten lehenengo aldiz zezenak Villabonara, 1941 urteko Santiotan. Lehen urte haietakoren bate-

an, zelebreekia galanta gertatu zen zezenen kontura. “Goizeko hiruak aldera atera zituzten zezenak kalera. Pentsa nola egongo ziren ordu horietan zezenak ateratzeko... Zezenak iragartzen zituen tronpeta-hotsa entzuz eta korrika plazara. Kaleak, orduan ere atakekin ixten zituzten, gaur bezala”. Joxek zezen haietako baten adarkada jaso zuen, “goizeko hiruretan ez zen sokamuturrik izan, zezen *enbolatuak* atera zituzten, adarrak bil-



Joxe Ugartemendia

“Zezen-suzkoaren zipriztinekin alkandora berria erre zitzaidan urte batean. Etxera joateko beldurrez gero”

duta zituztenak. Haietako zezen batek harripatu eta etxera eramanez ninduten. Ahaztu zait dagoeneko non hartu nuen mina baina, ez zen txantxetako izan”.

EUSKAL JAIA UZTAILAREN 30EAN



Mutilak zahagi dantza, 1944 urtean.

“San Inazio bezperan izaten zen, generalan, euskal jaia. Dantzari-txikiak, harrijasotzea, aizkora-apustua, bertsolaritza... Euskaldunen festa”. Dantzari-txikien emanaldian, herriko dantzari gaztetxoek hartzen zuten parte. Gaurko solaskideen artean badira bi dantzari: Pako Etxenike eta Anjel Egíño. “Santiotako emanaldia presatzeke, entsegu ugari egiten genuen batzokian”. Errebotearen gaia lantzen zuen aldizkarian aipatu genuenez, egun, Behar-Zana elkarte dagoen egoitza, batzokia izan zen gerra aurretik. “Ba al dakizue nor erakusten zigun dantza guri? Hil berria den Martin Ugaldere aitak; Pellok. Andoaindarra zen eta Andoainen ez ezik, Villabonan ere erakusten zuen dantza. Martinek, hainbat emanalditan gurekin ere egin izan zuen dantza” ekarri du gogora Pako. Anjel Egíño geroago hasi zen dantzan eta irakasle bat baino gehiago izan zuen. “Guri, Anto-

nio Zumeagak eta Antonio Florenzak erakutsi ziguten dantzan. Entseguak udaletxeko patioan egiten genituen lehenik, Subijana etxean gero”. Dantzari-txiki izateaz gain, Anjelek, Santio eguneko aspaldiko tradizio den dantza-sokan ere hartzen zuen parte. “Aurrekoa eta atzeskua egin eta gero, ikusleen artean neskak ateratzen genituen. Haiekin fandangoa eta arin-arina dantzatu eta gero, biribilketan ateratzen ginen kalera”. Neskak gustura joaten ziren dantza-soka ikustera baina, dantzariak nes-

ken bila ateratzen zirenean sortzen ziren komeriak, “neskak ihesi ibiltzen ziren. Lotsa ematen baitzien plazaren erdira ateratzeak”. Neskaren batzuek lotsatuaren papera egiten zutela uste du Joxek. Dantzari-txikiak, arratsaldean egiten zuten emanaldia plazan. “Euskal dantza ezberdinekin osatzen genuen emanaldia. Urtero dantza berdintsuak egiten genituen”. Herriko txistulariek jartzen zieten doinua dantzei, “tarrean Zipriano Cardenal aritzen zen, gerra garaian fusilatu egin zuten, txistua jotzen zuelako; 18 urte zituen. Atabalarri gisa, Daniel Arrillaga. Ziprianoekin batera fusilatu zuten”. Bertsolariak ere egun horretan izaten ziren, “Basarri, Mattin, Uztapide, Lazkao-txiki... bertsolari ezberdinak etortzen ziren urtero”. Batzuetan San Inazio bezperan izaten ziren idi edo ahari frogak ere. Ikusle ugari gerturatzen zen ididemak ikustera. Hala ere, Santiotan ez zen dirurik jokatzeko, erakustaldi moduan antolatzen zituen Udalak.



Pako Etxenike

“Hil berria den Martin Ugaldere aitak, Pellok, erakusten zigun dantza”



Herriko dantzari taldea 1947 urteko Santiotan. Zutik, ezker-eskuin: Galdos, haur ezezaguna, Astecasuko Anbrosio txistularia, Migel Ezkioga, Ixiar Arruabarrena, Maritxu Arratibel, Fermína Martínez, Maria Jesus Begiristain, Miren Gurrutxaga, Maritxu Zubizarreta, Maribi Arregi, Mari Kruz Cardenal eta Antonio Zumeaga. Makurtuta, ezker-eskuin: Anjel Ortiz, Iñaki San Sebastian, Jose Luis Oiartzabal, Narciso Castillo, Migel Lasa, Juantxo Arrillaga, Julio Alonso, Iñaki Oiartzabal eta Migel Zalakain

BATELAK, UME-JOLASAK, HERRI-KIROLAK ETA DANBORRADA

Batelen lasterketak Oria ibaian izaten ziren. "Herriko lantegiak antolatzen zuten frogak. Lasterketaren antolaketan laguntzen zuen lantegi bakoitzeko, batel bat ateratzen zen. Villabonako zubitik hasi eta Adunarako zubiraino luzatzen zen lasterketa. Tolosako Sanjuanetarako prestatzen ari zirela hiru arraunlari ito egin ziren Adunan, bi villabonatar eta asteasuar bat". Jaietako beste arratsalde bat, umei zuzendutako ekintzek osatzen zuten. Ume-jolasak antolatzen ziren parte hartu nahi zuten guztientzat: koilarean arrautza hartuta lasterketa, elzteitsuak puskatzea,

zaku-karrera, lokots-biltzea, aulki joko... Gaur adina ume ez zegoen arren, ume ugari biltzen zen festetan antolatzen ziren jolasetan parte hartuz, "herriko ume guztiak". Gainera, parte hartzaile guztientzat izaten zen saria, irabazleak eta galtzaileak bereizi gabe. Baserritarren edo herri-kirolen eguna ere izaten zen. Froga ezberdinak antolatzen ziren egun horretan, "idi-demak, harri-jasotzea, aizkora-apustua, korrika lasterketak... Egundorretan, esku pilota eta zesta-punta partidak ere izaten ziren". Santiotako beste ezaugarri bat, Behar-Zana elkarteak anto-



Batelak Zubimusu azpitik igarotzen.

latzen duen danborrada. "1946 urtean, elkarteak zabaldu zenetik, urtero egin da danborrada herriko kaleetan zehar".

ERREBOTEA SAN INAZIOTAN

Jaien azken eguna, San Inazio eguna, berriz ere egun handia izaten zen villabonatarrentzat. Errebotea zen egun horretako ekintza nagusia. "Iparraldeko pilotariak etortzen ziren Asparrendik, Donibane Lohitzunetik... Iru-aldeta parean egiten zitzairen ongi-erria pilotariak eta ttun-ttunarekin kale-jiran etortzen ziren plazaraino. Bolada luzean, txistularien artean, Martin Laskurain eta Roberto Garate *Lumaneko* kideak aritu ziren txistua jotzen. "Villabonako eta Iparraldeko pilotariek gain, Udaleko kideak gehitzen zitzaizkion kalejirari, udaletxeko bandera eramaten zuten haiek". Behin Errebote Plazara iritsitakoan, urteko partidarik garrantzitsuenetakoa jokatzeko. "Ikusleak gainezka izaten zen plaza. Eguerdiko hama-



Pakita Lasa

"San Inazio eguneko musika amaitutakoan, penatuta etxera. Agur festei, hurrengo urtera arte"

bieran, partida geratu eta on Roman Iraola apaizak Anjelusa errezatzen zuen. Ixiltasuna nagusitzen zen tarte horretan". Partida galdu edo irabazi, pilotari guztiak bazkaria izaten zuten ondoren Arantzabi jate-

txean. "Oraindik ere, ia bere osotasunean mantentzen da ohitura hura. Iazko San Inazio egunean, errebote partida horiek antolatzen hasi zireneko 75. urteurrena bete zenean, omenaldia egin ziguten errebote jokalaririk izandakooi. Iparraldeko pilotariak ere etorri ziren. Egundorretan errebotea zen protagonista baina, ez ekintza bakarra. "San Inazio egunean ere, meza nagusi jendetsua izaten zen. Hala ere, goizean behintzat, ez zen beste kontu handirik izaten; errebotea bakarrik". Arratsaldean bai, musika izaten zen plazan. "Beasaingo musika banda etortzen zen. Emanaldia amaitutakoan penatuta etxera. Agur festei, hurrengo urtera arte".



San Inazio eguneko errebote partida.



Txistulariak, pilotariak eta Udal ordezkariek batera plazarako bidean.

ERROSKILEROAK, BARKILLEROAK, HELADEROAK... KUTIXIA UGARI

Festetarako, barrakak edo feriak etortzen ziren orduan ere. "Buelta guztia ematen zuten *lantxak* jartzen zituzten plazan.

Gora igotzen ziren. Zein gustura ibiltzen ginen han, kilimak sortzen zituen sabelean. Kulunpio itxurako kateak ere ekar-

tzen zituzten, bueltak ibiltzen zirenak. Gainerakoan, *tiripitxoia* izaten zen. Diru pixka bat bagenuen, gustura baino gustu-



Gaztetxoek hain gustuko zituzten *lantxak*

rago! Uztailaren 30erako kentzen zuten guztia, errebote partidarako garbi utzi behar baitzen plaza". Igandero plazara etortzen ziren barkilleroak eta karameleroak bisita egiten zuten festetan ere, "Tolosako Petra barkilleroa, karameleroak, abellanoak, errokilleroak eta Santiotan, heladero ere etortzen zen". Kutixia horietarako, Santiotan, paga pixka bat gehiago

izaten zuten gehienek, "bestetan baino zerbait gehixeago izaten zen". Hala ere ez omen zen asko izaten. Joxek, "festetan gutxi eta gainontzeko egunetan batere ez" dio. Lanean ari zirenek, aparteko soldata jasotzen zuten jaien aurretik. "Paga 'extraordinarioa' izaten zen Santioen aurretik. Ez zen batere gaizki etortzen, besteak beste, baxoerdi batzuetarako".

SANTIOAK LEHEN ETA ORAIN

Gehien gustatzen zitzaizkien ekintzez galdetuta, gizon gehienek "festak ez amaítzea" erantzun dute. Emakumeak bat etorri dira ekintzarik gustukoena dantzatzea zela esaterakoan, "guretzat, neskenetzat, zer zegoen ba besterik? Ez zegoen ezer". Pakok errebotearen egun handia aipatu du, Anjelek

dantzari-txikien eguna, Joxe taberna; "ez ziguten neskekin dantzan aritzen uzten eta". Martinek, berriz, txistularien alardea du gogoran. Garai bateko Santioak oraingoekin alderatuta, lehen giroa alaiagoa zela diote. Musika doinuek, herritar gehienak, dantzan jarritzen zituela. "Plazan musika jotzen ari diren

bitartean, inor ez da dantzan aritzen. Jendea tabernetan ibiltzen da, musika taldea ekartzeko, berebiziko dirutza ordaindu den bitartean. Txaranga ere atzetik inor gabe pasatzen da. Lehen jende piloa eramaten zuten txarangak, denak saltoka jarrita. Orain, berriz, ezta umerik ere".

Garai bateko Santioen berri azaldu dute oraingoa *Lumaneko* kideek. Urteak aurrera, hainbat ohitura errotik aldatu den arren, beste haibat mantentzen da oraindik ere. Santioen bezperatan gaudenez, 'jai zoriontsuak guztioi!'.



Martin Laskurain



Pakita Lasa



Isabel Beraza



Joxe Ugartemendia



Maria Luisa Zalakain



Anjel Egiño



Jabier Berasaluze



Pako Etxenike

...ETA HURRENGOAN ZER:

Bederatzigarren zenbakian, erlijioa izango da mintzagai. Bataiotik hasi eta azken igurtzira bitarte, sakramentu ezberdinak hartuko dira gaitzat, hamaika usadio gogoratuz. Ezkontzarako, emakumeak beltzez jantzen ziren garaikoa da argazkia, 1949 urtekoa. Senar-emazte berriak, berriz, Manuel Gabirondo eta Martina Irazusta.

Oharra: Abuztuan jai egingo dugunez, irailean kaleratuko da hurrengo zenbakia. Oporraldiaren ostean, indartsu eta gogotsu ekingo diogu berriz ere iragana gogoratzeari. Ordura arte, bezaz... Uda ona izan!



ARGITARATZAILEAK



Amasa-Villabonako Udala



Manuel Larramendi Kultur Bazkuna

Argitaratzaileak: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna, Amasa-Villabonako Udalaren dirulaguntzaz. Ekoizlea: Erroitz B.M. Zuzendaritza eta erredakzioa: Ainhoa Arozena. Maketazioa: Maddi Trutxuelo. Argazkiak: Xabi Ubeda, Erretratu zaharren liburua (Larramendi Bazkuna) eta artxibo ezberdinak. Inprimaketa: Sortu grafikak (Zizurkil). ISSN: 1698-7330. Lege gordailua: SS-1289/04. Tirada: 1.400 ale.

EKOIZLEA



BABESLEA



Eusko Jaurlaritza Kultura Saila